



Gure zerbitzuan hainbat hornitzaile desberdin kontratatuko ditugu. Adibidez etxera bueltako bidaiari hainbat ogitarteko eta alkoholik gabeko edariak salduko genituzke etxera bueltan afaltzeko aukera izan dezaten. Elikagai enpresa batekin aordio bat izango dugu beharrezko ogitartekoak eta edariak izateko.

Bestalde asteburuak pasatakoan autobusak oso zikin egongo direla argi dago, horregatik astero gure autobusak garbi mantentzeko garbiketa zerbitzu bat kontratatuko dugu. Autobusa erabili eta hurrengo egunera (normalean igandeetan) garbitzaileak autobusa garbituko du, honen helburua gure erabiltzaileek zerbitzu on bat izatea da. Hortaz aparte, gidariak kontratatuko ditugu, zerbitzua aurrera eraman ahal izateko.

Gainera, udaletxeak autobusa gordetzeko lekua erraztuko digu, zerbitzua onuragarria delako gizartearentzako. Akordioaren bidez lokal bat utziko digu prezio onean, autobusa gorde ahal izateko. Hortaz aparte, udaletxeak IBI zerga ez ordaintzea ahalbietetako digu, ematen dugun zerbitzua oso garrantzitsua baita.